


Ongi Etorri Basauri

HARRERARAKO
BALIABIDEEN GIDA



Informazio gehiago • Más información • More information

Mai multe informatii • Plus d'information • 详情请见 • للمزيد من المعلومات اضغط هنا

www.ongietorri.basauri.eus

Basauri

1. Basauriko Haurreskola-Etxeko Kuttuna
2. Basauriko Haurreskola-Etxeko Seline
3. EIPR BBK Basauri HEPR
4. CEP Arizko Ikastola LHI
5. CEP Basozelai-Gaztelu LHI
6. CEP José Etxebarri LHI
7. CEP Kareaga Goikoa LHI
8. CEP Bizkobalde LHI
9. CEP Sofia Taramona LHI
10. CEP Solarte LHI
11. CPEI S^{te} M^{te} de la Providencia HIP
12. CPEIPS Cooperativa Basauri HLBHIP
13. CPEPS San José LHBIP
14. IES Urbarri BHI
15. IES Urbi BHI
16. IES Bidebieta BHI
17. Basauri-Etxebarri Lanbide Hastapenerako Ikastegia
18. Halduntzako "Denon Eskola"
19. Udal Euskaltegia
20. Bolintxu Euskaltegia
21. Hizkuntza Eskola Ofiziala
22. Ziri-Zart Gazte Bulegoa
23. Basauriko Udalak, Bidearte Erakuntza
24. Basauriko Udalak, Erakuntza nagusia
25. Basauriko Udalak, San Migel
26. Marienea-Basauriko emakumeen etxea
27. Basauri-Arizeko ambulancia
28. San Migel auzoko konbulsategia
29. Kareaga-Kaleroko osasun zentroa
30. Lanbide (Urbarri)
31. Lanbide (Urbi)
32. Behargintza Basauri-Etxebarri
33. Urbi Polikirkoldegia
34. Artunduaga Polikirkoldegia
35. Ibaiganeko Kultur Etxea
36. Pozkoetxe Kultur Etxea
37. Basozelai Gizarte etxea
38. Kareagako Gizarte etxea
39. Arizko Dorretxea
40. San Migel Kultur Etxea
41. Social Antzokia
42. San Migel Taberna Mayor
43. Metro Salidas
44. Lanzadera San Migel
45. Moon Locutorio
46. Correos
47. KZ Gunea



San Miguel



LEHENENGO PAUSOA: ERROLDATZEA

Erroldatzea da Udal Erroldan, herriko bizilagun guztiak agertzen diren erregistroan, izena ematea. Espainiar herritartasuna nahiz atzerrikoa duen pertsona oro erroldatu daiteke, egoera administratibo erregular nahiz irregularrean egonda, eta edozein adin edukita.

Erroldatzea:

- Udalerrian bizi direnek Erroldan eman behar dute izena, nahitaez.
- Izenda emanda honako hauetarako sarbidea lortuko dute: osasun arreta, gizarte-zerbitzuak eta hezkuntza.
- Erroldatzea ez dezake inork egotzi: eskubideak urratzen ditu, eta Udalari eragotzi egiten dio herriaren profila ezagutzea.

Oso garrantzitsua:

Europar Batasunekoak ez diren atzerritarrek, iraupen luzeko egoitza-baimena, dutenek salbu, Udal Erroldan izen-ematea berritu behar dute izena eman zutenetik bi urte igaro baino lehen. Ez badute hori egiten, Udalak bajan eman ahaliko ditu, aurretiazko entzunaldirik gabe.

Aurkeztu beharrekoak:

- Identifikazio agiri ofiziala (indarreko NA, AIZ edo pasaportea...), baita fotokopia ere.
- EBko hiritarrak: EBko hiritarren erregistroko ziurtagiria.
- Etxebizitzaren erabilera egiaztatzen duen dokumentua (jabetza-eskritura, -kontratua edo ur- eta argi-horniduren -ak...), baita fotokopia ere.

Izen-ematea:

Herritarren Informazio eta Arretarako Bulegoetan (HIAB).

Herritarren informazio eta arretarako bulegoak (HIAB).

Basauriko Udalak herritarrei informazioa eta arreta emateko bulego bi ditu, basauriarren izapide eta eskaerei erantzuteko:

• HIAB Basauri

Kareaga Goikoa 52
944 666 300

Ordutegia:

08:00-20:00 (astelehenetik ostiralera).
Ekainaren 15etik irailaren 15era: 08:00-14:00.

• HIAB San Miguel

Pagasarri z.g.
944 666 642

Ordutegia:

08:00-15:00 (astelehenetik ostiralera).
Uztaila eta abuztuaren: 08:00-14:00.

OSASUN ARRETA

Urteko 365 egunetan, 24 orduz

Telefono-zenbaki berriak:

944 203 020 – 902 203 020

Hitzorduetarako sistema berriak Interneten:

www.osakidetza.euskadi.net

Osasun txartel indibiduala (OTI).

Osasun arretarako eskubidea Osasun Txartel Indibidualaren bidez (OTI) gauzatzen da.

OTIa lehenengo aldiz eskuratzeko, zuen osasun-zentrora jo behar duzue.

Agiri hauek aurkeztu behar dituzue (originala eta fotokopia):

- Errolda ziurtagiria.
- NA/AIZ.
- Osasun-laguntza jasotzeko eskubidearen egiaztatzea, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak egina.
- Adingabeak: familia-liburua.

Gizarte Segurantzaren afiliazio-agiririk ez baduzue, zuen osasun-zentroan esango dizuezte zer baldintza bete behar dituzuen OTIa eskuratzeko.

Ohiko osasun arreta.

Sistema publikoko lehen mailako osasun arreta arrunta doakoa da, eta familia-medikuak ematen du. Medikuek gaixoa artatzen du eta, beharrezko bada, mediku espezialista batengana bidaltzen du. Lehen mailako arretarako medikua izateko beharrezkoa da Osasun Txartel Indibiduala (OTI) edukitzea edota osasun-laguntzarako onarpen-eskaria onartuta izatea.

Haurdun dauden emakumeek nahiz 18 urtetik beherako neska-mutilek osasun-arreta jaso ahal izango dute gertuko osasun zentroan erroldatzea eta OTIa faltan izan arren.

• Osasun zentroa: Basauri-Ariz

Nagusia 27
946 007 345

• Osasun zentroa: Kareaga Kalero

Karmelo Torre 4
946 007 474

• Osasun zentroa: San Miguel

Garbileku 2
944 262 740

Premiazko osasun arreta.

Pertsona guztiek dute premiazko osasun arreta jasotzeko eskubidea, OTIarekin nahiz OTIrik gabe.

ETENGABEKO ARRETA GUNEA (24h)

• Basauri – Ariz

Nagusia 27
946 007 345

• Galdakao-Usansolo Ospitalea

Labeaga auzoa z.g.
944 007 000

• Osakidetza, Larrialdi Zerbitzuak

944 100 000

Farmaziak.

Sendagaiak farmazian eskuratzen dira. Sendagai gehienak eskuratzeko beharrezkoa da errezeta medikoa.

• Farmazien zerrenda eta guardiako botikak:

www.cofbizkaia.net

Sexuari buruzko informazio eta aholkularitza bulegoa.

Bulego honen helburua da adin guztietako pertsonen laguntza ematea, sexualitateaz gehiago gozatzeko, beren nahiak eta interesak landuz edo

dituzten sexu-zailtasunak gaintuz. Halaber, anti-sorgailuei buruzko oinarriko informazioa emango zaizkie eskatzen duetenei.

• Sexuari buruzko informazio eta aholkularitza bulegoa

Kareaga Goikoa 54 - Marienea
946 124 106 - 900 101 709
Doakoa.

Beste osasun baliabide interesgarri batzuk.

• Munduko medikuak

Integrazio sozio-sanitariorako programa.
Bailen 1 - Bilbo
944 790 322

• Odontologia Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea

Leioako Kanpua
Sarriena auzoa z.g. - Leioa
946 012 941 - 946 012 942

• Hiesaren aurkako batzordea

Maiatzaren 2a 6, 1. esk - Bilbo
944 160 055
GIB antzemateko test azkarra.
Doakoa.

ETXEBIZITZA

Gizarte-babeseko etxebizitza alokatzeko zerbitzu publikoa dago. Zerbitzua jasotzeko, ETXEBIDE Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuan eman behar duzue izena. Izena emateko baldintzei eta eskaerari buruzko argibideak, hemen:

• Etxebide, Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua

Kale Nagusia 85 - Bilbo
012 (Zuzenean)
www.etxebide.euskadi.eus

• Bidebi

Agirre Lehendakaria 61, beheka - Basauri
946 073 021

GIZARTE- ETA LAN-BALIABIDEAK

Oinarrizko gizarte zerbitzuak.

Basauriko Udaleko Gizarte Zerbitzuen helburua da Basauriko herritar guztiei laguntzea gizarte-laguntzaren alorreko zerbitzuak lortzen, bai beharizan egoera zehatz bati irtenbidea emateko, bai beraien autonomia hobetzeko laguntza lortzeko, bai gizarteratzea edo ongizatea lortzeko.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek laguntza eskatzera datozen guztien egoera aztertu eta baloratu dute, herritarrei laguntza emango diete (Basaurin erroldatuta egon ala ez), eta saiatu dira gizarte-izaerako beharriak asetzen.

Helburuak:

- Autonomia pertsonala sustatzea, eta mendekotasunaren ondorioz emandako banakoaren eta familiaren beharrei erantzutea.
- Babesgabetasun-egoerak, bazterkeria-egoerak eta larrialdi-egoerak prebenitzea eta horiek eragindako beharrei erantzuna ematea.
- Pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea.

Aurrez hitzordua eskatu beharko duzue:

- **Basauri**
Bidearte 10
Bidearte eraikina,
Basauriko Udala
944 666 348
- **San Miguel**
Pagasarri
San Miguel auzoa
944 666 642

Badago **aldibereko itzulpen - zerbitzua (DUALIA)**, hainbat hizkuntzatar, beharrezkoa duten etorkinentzako.

Garrantzitsua:

2012ko urtarrilaren 1etik LANBIDE Euskal enplegu Zerbitzuak kudeatzen ditu inklusio aktiborako hitzarmenak, Diru-sarreraren Bermerako Errenta eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria. (Ikusi 6. orrialdea).

LAN-ESKUBIDEAK ETA GIZA BALIABIDEAK

Europar Batasunekoak ez diren herrialdeetako atzeritarrek Espainian lan egin dezakete besteren kontura (enplegatzaile batek kontratatua) edo euren kontura, baldintza jakin batzuk beteta. Horretarako lan eta bizileku-baimena beharko dute. Baimen hori jatorrizko herrialdean lortu beharko dute, bizileku-baimenaren titularrak izan ezik. Espainian modu irregularrean egoteak lan- eta bizileku-baimena lortzeko eskabidea ez onartzea ekarriko du.

Lan egin ahal izateko beharrezkoa da 18 urtetik gora izatea -nahiz eta 16 urtetik aurrera lan egin daitekeen guraso edo tutoreen baimenarekin-.

Lan- eta egoitza-baimenik gabe kontratatutako langile atzeritarrek ez daude legezko egoeran, baina lan-eskubideak dituzte. Ez-ohikotzat jotzen den edozein egoera, gehiegizko ordutegiak, soldata bereizkeriak, zenbatekoak erreklamatzeko, istripu arriskuak edo bidegabeko kaleratzeak esaterako, edozein erakunde sindikali (CNT, USO, ELA, LAB, UGT, ESK) edo Lan Agintaritzari (Lan-luskaritzak) jakinarazi dakioko.

- **Lan ikuskaritza**
Kale Nagusia 50
944 398 016
- **ELE-ETXE Barrukoak elkarte**
Etxeko langileen eskubideak defendatu eta sustatzeko elkarte.
www.ath-ele.com

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzua.

Lan-bilaketaren prozesuan lagundu eta orientatzeko Eusko Lurralitzaren Enplegu Zerbitzua da Lanbide.

Lehenengo lanaren bila dabiltzanei, langabezia daudenei, berriz lan-munduratu nahi dutenei, lanean dabiltzanei eta lana aldatu nahi dutenei zuzenduta dago. Era berean, lanpostuak bete nahi dituzten enpresei enplegua sortzeko aholkularitza eta laguntza emango diete.

Langabetuek Lanbideren bidez egiaztatuko dute beren egoera; enplegua emango dutenei ere oso baliagarri sueta dakieke, kontratuan hobariak lortzeko.

Lanbidek Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria kudeatzen ditu.

- **Uribarri**
Uribarri 14
944 033 161
www.lanbide.eus
- **Urbi**
Urbi 5
944 033 129

SEPE - Estatu Mailako Enplegu Zerbitzu Publikoa.

Enpresentzako eta langileentzako zerbitzuak eskaintzen ditu. Besteak beste, langabezia-presazioak izapidetzeaz eta ordaintzeaz arduratzen dira, eta langabezia-prestazioaren ordainketa pilotua kudeatzen dute (bai ordainketa bakarra, bai atzeritarrek sorterrira beren borondatez itzultzeko laguntza).

- **SEPE**
Urbi 5
901 119 999 - 944 985 958
www.sepe.es

Behargintza.

Basauri eta Etxebarriko udalen sozietate publikoa da, udalerrri bi horietako garapen integrala sustatzeko sortua. Bertokoen enplegarritasuna hobetzera eta udalerriotan enpresa-garapena sustatzera bideratutako ekintzak uztartzen ditu. Funtsezko hiru eremutan lan egiten du:

- Lana: lana bilatzen eta prestakuntza profesionala hobetzen laguntzeko zerbitzua (lan-munduratzeko banakako ibilbideak; taldekako ekintzak; prestakuntza-ibilbideak; enplegu-zentroa).
- Enpresak sortzea: enpresa eta autoenplegu ekimenak abiarazten laguntzeko zerbitzua (informazioa, aholkularitza, enpresa-plana, pres-

takuntza, laguntza, martxan jartzea).

- Enpresentzako zerbitzuak: enpresen lehiakortasuna hobetzera bideratutako zerbitzuak.

- **Behargintza**
Baskonia 1
944 262 999
basauri-etxebarri@behargintza-be.biz

HEZKUNTZA

Heziketa nahitaezkoa eta doakoa da 6 eta 16 urte bitarteko pertsona guztientzat, eta bi alditan zatitzen da: Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

Gainera, eskaintza zabala dago -gehiena doakoa- 0-6 urte bitartekoentzat eta 16 urtetik gorakoentzat.

Hezkuntza zentroaz gain, hizkuntza-eredua ere aukera daiteke. Hiru eredu daude: A (funtsean gaztelaniaz; euskara ikasgaia besterik ez); B (gutxi gorabehera ikasgaien erdiak gaztelaniaz eta erdiak euskaraz); eta D (funtsean euskaraz, gaztelania ikasgaia besterik ez). Kasu guztietan beste hizkuntza bat ikasten da (ingelesa), eta kasu batzuetan beste bat (frantsesa).

Informazio gehiago: Herriko hezkuntza zentroetan, eta webgune honetan: www.ongietorri.basauri.eus.

Pertsona helduen ikasketak eta gaztelania ikastaroak.

Pertsona Helduentzako Hezkuntza Zentroa Eusko Lurralitzako Hezkuntza Sailaren mende dago eta prestakuntza-programa zabala eskaintzen du (alfabetizazioa, bigarren mailako hezkuntzan graduatzea, euskara, informatika...). Gainera, gaztelaniazko ikastaroak eskaintzen ditu, atzeritarrei zuzenduta.

- **Denon Eskola**
Ibaigane z.g.
944 402 022

Euskara.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Iparralden bezalaxe, Basaurin ere hizkuntza ofizial bi hitz egiten dira: euskara eta gaztelania (euskara eta frantsesa, Iparralden). Euskara ezagutu eta erabiltzea balio erantsia da herritarrekin harremanak izateko.

Udalak Euskara Atala du, eta euskara ikastea eta erabiltzea bultzatzen du, zenbait programa eta laguntzaren bitartez.

- **Euskara Atala**
Bidearte 10 - 48970 Basauri
944 666 312

Euskara eskolan ikasten dute askok, eta beste askok Euskaltegiara jotzen dute, euskara irakasteko zentro espezializatuera. Basaurin bi euskaltegi daude, 16 urtetik gorakoentzat biak.

- **Udal Euskaltegia**
Urbi 33
944 406 217
- **Bolintxu Euskaltegia, AEK**
Solabarria 4
944 408 264

Aipatutakoez gain, Hizkuntza Eskola Ofiziala dago Basaurin.

- **Hizkuntza Eskola Ofiziala Basauri**
Bentako Plaza
944 266 881

Tituluen homologazioa.

Informazio eta aholkularitza doan.

- **Kosmopolis elkartearen**
688 605 551
www.kosmopolis.es

KULTURA, KIROLA ETA AISIALDIA

Kulturari eta aisialdiari dagokionez, basauriarrok zenbait udal ekipamendu ditugu irakurketaz gozatzeko; egunkariak kontsultatu eta Internet

erabiltzeko; erakusketak bisitatzeko; trebetasun artistikoak lantzeko tailerretan parte hartzeko (argazkigintza, eskultura, margogintza...); eta zinema zein antzerki programazioa ikusteko.

- **Ibaigane Kultur Etxea**
Ibaigane 2
944 666 388
- **Basozelai Gizarte Etxea**
Basozelai 11
944 666 400
- **San Miguel Kultur Etxea**
Nekazarien Plaza
944 666 398
- **Taberna Nagusia San Miguel**
Gernika 60
944 666 471
- **Pozokoetxe Kultur Etxea**
Erronkari Ibarra z.g.
944 666 395
- **Arizko Dorretxea**
Frantzisko Kortabarria z.g.
944 666 426

Liburutegi sarea.

Liburuak, CDak eta DVDak maileguan hartu ahal izateko, beharrezkoa da auzo etxe eta kultur etxeetako liburutegi publikoetako bazkide izatea. Doakoa da, eta horietako edozeinetan egin zaitzekete bazkide (Basozelai, Ibaigane, Pozokoetxe eta San Migel).

Social Antzokia.

Social Antzokiak berezko egitaraua du urte osoan zehar: zinema, antzerkia, dantza eta bestelako kultur erakustaldiak eskaintzen ditu. Egitarau horren berri jasotzeko beren webgunea bisitatu dezakezue, edo, bestela, Antzokiko txarteldegira hurbildu.

- **Social Antzokia**
Nagusia 2
944 666 393

Kiroldegia.

Kirola egiteko udal instalazioak.

Informazio gehiago: www.basaurikirolak.eus

- **Artunduaga Kiroldegia**
Artunduaga auzoa z.g.
944 666 383

KZ Gunea.

KZ Gunea zentro publikoa da, eta Internet bidezko ikasketak egiteko zein sarean nabigatzeko instalazioak eskaintzen ditu, doan.

- **KZ Ariztoiti**
Ibaigane 2
Ibaigane Kultur Etxean
944 033 321
- **KZ Basozelai**
Basozelai 11
Basozelai Gizarte Etxean
944 033 322

HAURRAK ETA GAZTEAK

Ludotekak.

Basaurin ludotekak daude 4-12 urte bitarteko haurrentzat. Jolasteko eta jolasten ikasteko gu-neak dira, eta ikasturte osoan zehar daude zabalik. Ludoteka-zerbitzuak prezio publiko txikia du, eta anai-arrebek hobariak dituzte. Argibideak jasotzeko eta izena emateko auzo etxetara jo behar duzue, han ematen baitute ludoteka zerbitzua.

Udalekuak.

Ikasturtea amaitu eta gero, uztailean zehar, Udalak herrian antolatutako udalekuak (4-14 urte) eta multiabentura udalekuak (12-17 urte) antolatzen ditu.

Multiabentura udalekuak.

Udalak udalekuak antolatzen ditu 12-17 urte arteko gazteentzat, ekaineko azken astean eta uztaileko lehen astean zehar.

Informazio gehiago: www.basauri.net

- **Kultura-Politika eta Euskara Arloa**
Bidearte 10 - 48970 Basauri
Bidearte eraikinean
944 666 311

Zirt-Zart.

Zirt-Zart gazteen informazio bulegoa da, eta Basozelai Gizarte Etxean dago. Gazte Txartela eta aterpeke txartela izapidetuko dizkizue bertan. Horrez gain, gazteei zuzendutako aisialdi eta kultura jarduerak zenbait antolatzen dituzte. Horiek kontsultatzeko, hemen: www.basauri.net. Bestela, Basozelai Gizarte Etxean bertan.

- **Basozelai Gizarte Etxea**
Basozelai 11
944 666 430

Gaztegunea.

12-30 urte bitarteko gazteentzat. Jolasak, aldizkariak, CD eta DVDak (musika eta filmak), Internetarako sarbidea eta musika taldeentzako entsegu-gelak daude bertan.

- **Basozelai Gizarte Etxea**
Basozelai 11 - 48970 Basauri
944 666 400
- **Taberna Nagusia San Miguel**
Gernika 60
944 666 471

BESTE INFORMAZIO BATZUK

Garraioak.

Basaurin ditugun garraioen artean aipagarrienak dira Bizkaibus autobus linea, Metro Bilbao (San Migelitik Basauriraino hurbiltzeko doako lanzadera-zerbitzua dago) eta Renfe aldiariak trenbide-linea.

Tratu txarrak jasan dituzten emakumeak.

Emakumeek jakin bezate inork ez duela eskubiderik beraiei mehatxurik egiteko, min emateko edo iraintzeko. Hurreko senideek ere ez dute eskubiderik beraiekin sexu-harremanak izatera behartzeko, emakumeok jendaurrean iraintzeko, diruaz jabetzeko aukera kontrolatzeko, ezta lagunekin edo senideekin harremanetan izatea galarazteko ere.

Beste herrialde batekoak bazarete ere, horrelakorik gertatzen bazaizu tratu txarrak jasaten egongo zarete, eta laguntza eska dezakezue:

- Erasoa jasan baduzue, edo laster jasango duzuela uste baduzue, polizia edo epaitegiari eska diezaioketue laguntza, babestu zaitzatzen.
- Tratu txarrik jasan baduzue edo beldur bazarete, polizia iraintzeko eska diezaioketue, zuzenean edo zuen konfiantzako norbaiten bitartez.
- Lesiorik izan baduzue, zoazte osasun etxera. Bertan hartuko zaituztete, lesioak zelan egin dituzuen azaldu, eta oso baliagarria izango zaizuen medikuaren txostenaren kopia eska dezakezue.
- Lesiorik ez baduzu ere, laguntza eska dezakezu Udaleko Gizarte Zerbitzuetan. Bertan lagundu egingo dizute; zure eskubideen berri eman eta egoeratik irten lagunduko dizute. Laguntza psikologikoa, juridikoa, ekonomikoa eta aldi baterako ostatua eskainiko dizute.

Genero-indarkeriaren biktima izandako emakume atzeritarrek, baimenik eduki ezean, aparteko baldintzengatik bizileku-baimena lortu dezakete.

Tratu txarren biktimei arreta emateko telefonoa.

Doakoa, isilpekoa, 24 orduz, 7 hizkuntzatan. Emakume biktimei laguntza emozionala, argibideak eta orientazioa emateko.

• 900 840 111

Larrialdi telefonoa: 112.

Larrialdirik ematen bada, 112 doako telefono-

ra deitu behar duzue. Telefono horretan abisua emango da, edo deia dagokion zarbitzura bidertuko da: polizia, anbulantzia, suhiltzaileak, etab.

Herritarren segurtasuna eta justizia.

• Udaltzaingoa

Jaga 2
944 666 341

• Polizia Autonomikoa Ertzaina

Uribarri z.g.
946 075 360

Doako arreta zerbitzua jasotzeko eskubidea.

• Orientazio juridikoko zerbitzua

Barroeta Aldamar 10
944 016 712 - 944 234 376

Egoera diskriminatzaileak salatzeko baliabideak.

ARARTEKOA - HERRITARREN DEFENDATZAILEA: Edozein bazterkeria edo gehiegikeriari buruz herritarrek dauzkaten kekak jaso eta kontuan hartuko ditu.

• Arartekoa

San Vicente 8 - 11. Bilbo
Albia eraikina
944 234 409

ERABEREAN:

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politike-tako Sailak bultzaturiko sarea da. Arraza, etnia edota nazio jatorriak, sexu- orientazio zein identitateak eta genero-identitateak eragindako diskriminazioari aurre egitea du helburu.

• **CITE- CC.OO:** 944 243 424

• **KALE DOR KAYICO:** 691 674 414

• **ALDARTE:** 944 237 296

• **ERREZPETUZ:** 675 459 317

• **NEVIPEN:** 946 526 989

SOS Arrazakeriaren informazio eta salaketa bulegoa.

Partikularren eta erakunde publiko zein pribatuaren xenofobiak eta arrazakeriak sortutako egoeren biktima edo lekukoentzako arreta zerbitzua eskaintzen dute.

• SOS Arrazakeria

Lapurdi etorbidea 7 - lonja
944 790 310

Emakume eta gizonen arteko berdintasuna.

Basauriarrok zenbait baliabide ditugu emakumeen eskubideak defendatzeko eta desberdintasunak gutxitzen joateko ekintzak abiarazteko. Helburua: emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzea.

Lehenengo eta behin, emakumeen mugimendu sendo eta errotua dago herrian: emakumeen eskubideen eta interesen defentsan diharduten emakume ugari dago. Bigarren, Udaletik ere bideratzen dira zenbait jarduerak eta politika publiko, udalerrian genero-harremanak aldatzeko.

Honako hauek dira Basauriko Udaleko Berdintasun Atalak bere gain hartutako zerbitzu nagusiak: Emakumeentzako Informazio Zentroa, Jabeakuntza Eskola, Equitruke Denbora Bankua, Sexu Informazioarako Bulegoa, Sexu Informazioarako Bulegoa Berdintasun Kontseilua.

• Emakumeen Etxea-Marienea

Kareaga Goikoa 54
946 124 100

Atzeritarrentzako arreta juridikoa.

Eusko Jaurlaritzak Aholku Sarea-Atzeritarrenganako Aholkularitza Zerbitzua eskaintzen die beren egoera administratiboari eta atzeritartasun legeriari lotutako zalantzak argitu nahi dituzten etorkinei. Argibideak, orientabideak eta aholkularitza eskaintzen dituzte, eta zerbitzu espezializatueta bideratzen dituzte kasuak.

Era berean, Euskal Herrian gehien hitz egindako hizkuntzetarako itzulpen zerbitzua daukate.

Beraiekin harremanetan jartzeko bide bi daude:

1.Telefonoz edo posta elektroniko bidez:

• Erabiltzaileentzat:

900 840 890
asesoria@ej-gv.es

• Profesionalentzat:

944 001 809
juridika@biltzen.org

2. Aurrez aurrekoa. Erakunde laguntzaile batera jo dezakezue. Hona hemen:

• **GURUTZE GORRIA:** 944 230 359 (Bilbo)

• **CITE – CC.OO:** 944 243 424 (Bilbo)

• **CARITAS:** bertako gizarte zerbitzuen bitartez.

HERRITARREN ELKARTEAK

Asko dira talde edo elkarteetako kide diren basauriarrok. Elkarte horien helburua da herritarren interesak ordeztea edota, besterik gabe, herritarrek elkarrekin aritzea, zenbait eremutan. Hainbat elkarte mota daude:

- Auzotarren elkarteak.
- Kultura elkarteak.
- Kirol elkarteak.
- Gizarte-izaeradun elkarteak.
- Emakumeen elkarteak.
- Kulturarteko elkarte eta taldeak.
- Jaietako kuadrillak.

Elkarte batean parte hartzeko, argibideak eskatu daitezke Herritarren Informazio eta Arretarako Bulegoan (HIAB).

Argibide gehiago behar badituzue Basauriko kulturarteko elkarte eta jardueri buruz, Udaleko Immigrazio Atalean eskatu ditzakezue.

• Immigrazio Atala

944 666 355
immigracion@basauri.es

Ongi Etorri Basauri

OHARRAK: